

## Ukraniarrek eta Euskal Eliza

*Deia*, 1977-07-14.

Egun hoietan heldu zaigu Paulo VI-ren hitzalditxo baten oihartzuna.

Ukraniar ikasle batzuei egindakoa izan da.

Ukranian ere ba dira katolikoak, noski, eta hoietako 55 gazte URSS-tik urten eta Erroma-ko San Clemente Unibertsitatean ikastaro batzuk egiten ari dira. Eta ikasle hoiek, irakasle eta guzti, joan dira Aita Santua ikustera.

Aita Santuak pozik hartu ditu, eta ohi duen bedeinkapen apostolikua ere eman die.

Hitzalditxoaren zatitxo bat etorri da teletipo bidez:

"Jakin zazute zer zareten: ukraniarrek, katolikoak, eta oraindik gehiago esango dizuet, egitan zuena den naziotasuna gozatzen uzten ez dizueten halabehar bateko zapalkuntza baten azpian zaudete".

Hitz hoiek irakurri ditudanean poztu naiz.

Zirrada bat ere egin didate.

Honelako konpromisorik ez bait du Elizak, eta Aita Santuaren ahoz gainera, sarritan hartzen.

Aitortu nahi dut; hitz hoiek kezka bat sortu didate: behar bada beltzak behar dugu izan, edo komunistapean bizi, katoliku geranok Elizagandik honelako arreta merezi izateko. Euskal Eliza soil baten ezagutza bat, noizko?

Orduan, Elizaren justizi barruan sentituko gara katoliku eta euskaldun sentitzen garenok.